


ttipi-ttapa

1990eko Ekainak 21

40. zenbakia

dohain banatzen da

Ibardingo
etorkizuna
zalantzan?



Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Erakusketa


EUSKARAREN EGOERA BORTZIRIETAN

Estudio Soziolinguistikoaren laburpena

ARANTZA	Ekainaren, 17tik 23a bitartean, Herriko Etxeko Arkupean
ETXALAR	Kultur Egunen barnean, ekainaren 24tik 30era bitartean, Herriko Plazan
LESAKA	Kultur Astearen barnean, uztailaren 1etik 6ra bitartean, Herriko Etxean



TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA TRINKOAK
20 HPtik 80HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEAK
GUILLERMO TXOPERENA eta LUIS GOÑI GARISOAIN
IGANTZI - Tfnoa (948) 63 79 95

NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.

5. Agenda.

6. Irakurleak mintzo.

7. Hontaz eta hartaz.

9/29. Herriz-herri; Bortzirriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Urdazubi, Goizueta.

30. Erreportaia. R. HARRIBILAGA

32. Elkarriketa. P. LARRETxea

33. Kirolak. MATTARI - R.H.

35. Komikia

36. Osasuna. O.M.T.

37. Aro Berriaren atarian.

38. Merkatu Ttikia.

Ibardingo merkataldearen birmoldaketa egitea beharrezkotzat jotzen du Ignazio Irazokik. Etorkizunak zalantzak agertzen baditu ere, ez dago arrazoirik erabat ezkorra izanzen dela errateko. **22. or.**



Ekainaren 28, arratsaldeko 8etan botako den altxaferuarekin batera hasiko dira 5 egun iraunen duten bestak Donezteben. Erdiko orrialdeetan, egitarauaren xehetasunak ikus ditzakezue. **17-24. orr.**



"Nik jende askori lagundu diot eta gaisotasun asko sendatu ditu, eta hoiek eskertzen dute nere lana, baina badira baita ere, ni lurpean banintz nahiago luketenak" dio Joxe Etxenikek, eskuen bitartez sendatzen duen petrikiloak. **24. or.**



Herri Kirol Txapelketan, zazpi herri eta zortzi taldek parte hartuko dute. Proba konbinatua eta sokatira saioak jokatu ahal izanen dira **27. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Isabel, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Leitzako Ikastari Euskaltzia, Olain Elkartea, Alizia Olaizola, Goiko, Patxi Larretxea, Josetxo Susperregi eta Mattarik

Inprimategia: Jomisa (Irun)

Tirada: 2.900 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen halabeharrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leizaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336



musika



RAP

New York-eko Bronx auzoan gehien entzun eta karriketan ikusten den gazte giroa dugu Rapper deitzen dena.

Elkarrizketak edota mitin politikoak diruditen monologo luzeak, musika edo akorde oso berdina eta guttirekin asmatuak dira gehienak. Duela hogeit hamar urte indarrean egon zen "Black Panthers" mugimendu armatu beltzaren teoriak erabiltzen dituzte "Public Enemy", rap musika talderik radikalak eta ezagunak musika munduan.

Bertze talde ezagunak ere badaude: Afrika Bambaata, Young MC, Fat Boys, DST etabar...

Gure artean musika edo korrante mota hau arrunt gutxi ezagutzen da; zaila, monotonoa eta komertzializatzeko gogorra delako. Baina mugimendu honek dakarren moda hementxe bertan dugu: galtzak, kamisetak, gorrak, oinetakoak eta bertze zenbait konplementu.

Mariano

ttipi-ttapa hamabostekariak aurrera egingo

Sei hilabete betetzeko guti falta zaigularik, 1.500etik 3.000 aletara pasatu gara. Gaur egun, Bortzirietan 1.377, Malerrekan 511, Baztanen 288, Leitza-Goizueta aldean 477, Zugarramurdi-Sara-Urdazubin 130, eta bertze herrietan 200dik goiti dira, *ttipi-ttapa* hartzeko eskaria egin dutenak.

Bertzalde, eta aldizkari hau banatzen deneko hedapen geografiko zabalarengatik, nahiko zaila gertatzen ari da Udalen diru-laguntza homogeneorik lortzea. Dena den laguntzarik garrantzitsuenak Nafarroako Gobernutik eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatetik jasotzen ditugunak dira; bertze herrietako Udalek ere zerbait lagundu dutelarik.

Estimatzekoa da baita, inguru hauetako lau elkarteak —Etxalarko Ikastola, Bortzirietako Parrokiak, Lesakako Ikastola eta Doneztebeko Eskolak— bakoitzak ahal duen mailan, luzatu duten diru-laguntza.

23 LARUNBATA

—**Beran**, antzerkia "Tira ta Floja", haur antzerkia.

—**Zugarramurdin**, gau pasa lezeetan.

—**Arizkun**, Herriko Bestak

—**Saldias**, Herriko Bestak.

24 IGANDEA

—**Donezteben**, XII Kross Herrikoia Erreka kirol Elkarteak antolatutako, goizeko 10etan benjaminak, kimuak eta haurrak; 11.30etan jubenilak, senior eta helduak. Izen ematea eta informazioa bertan ordu erdi bat lasterketa hasi baino lehen.

28 ORTZEKUNA

—**Donezteben**, 28tik uztailaren 2ra, Herriko Bestak.

1 IGANDEA

—**Lesakan**, Euskararen Astearen barnean, 10.30etan, Beti Gazte

-Gure Txokoa beteranoen futbol partidua. Arratsaldean, sokatira eta proba konbinatuaren erakusketa.

ERAKUSKETAK

—**Etxalarko**, ekainaren 24ean, Etnografia eta Euskararen Egoera Bortzirietan erakusketa. Lekua: Herriko Plazan.

—**Lesakan**, ekainaren 26tik uztailaren 6ra, Nafarroako Euskarari buruzko I. Erakusketa Orokorra. Lekua: Herriko Etxean.

—**Lesakan**, uztailaren 1etik 6ra, Euskararen Egoera Bortzirietan erakusketa. Lekua: Herriko Etxea.

IKASTAROAK

—**Beran**, igeriketa ikastaroetan izen emateko epea ekainaren 28an bukatuko da, izenak igerilekuan bertan eman behar direlarik egiteko epea. Ikastaroak Uztailak 2tik 31 bitarte eta Abuztuak 1etik 31 bitarte

—**Lesakan**, igeriketa ikastaroetan izen emateko epea uztailaren 13an bukatuko da. Izena emateko kirol bulegora deitu 63 70 05 telefonora. Ikastaroa Uztailak 16tik Abuztuaren 16 bitarte izanen da.

DEIALDIAK

—**Beran**, Oihua aldirikarirako lanak aurkezteko muga eguna ekainaren 30a. Udaletxeko idazkaritzan aurkeztu.

—**Bortziriak Kirol Elkarteak**, Eskubaloia eta Sakibaloia taldeak kadete eta gazte mailatan antolatu nahi ditu. Kadetetarako 1975-76an jaioak eta Gaztetarako 1972-73-74an. Izen emateko muga eguna ekainaren 30a bakoitzaren ikastetxeko gimnasia emaileari edota Mattariri deituz 63 70 05 telefonora.

GOARDIAKO BOTIKAK

—**Ekainaren 23-24an**, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

—**Ekainaren 30-1an**, Etxalar, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

ETXEGARAI *Telebistak eta Bideoak*

**ELEKTROGAILUAK
BIDEO KLUBA**

*Antena kolektiboak eta
banakakoak
konponketa tailerra*

Eztegara, 4 Tfnoa: 63 05 70 BERA

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

LEGARRA

**PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK**

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza» **Aseguro
mota guztiak**

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

Etxalarko kontsultan TTIPI-TTAPA zaborretara?

TTIPI-TTAPAKo lagun horiek?

Gogoratzen dut duela guti aditu izana, Etxalarko eta bertze herrieta-ko osasun kontsultetara TTIPI-TTATAren ale bat aldiro bidaltzen duzuela, esperoan egotea suertatzen zaigunean eta bertzerik ezean, leitzeko edota bistada bat emateko zerbait izan dezagun.

Ba... Etxalarko kasuan ez da nonbait horrela gertatzen. Enteratu naizenez (segurutik bait dakit), kontsulta etxera eraman eramaten omen da baina nonbait... jendea esperoan egoten den gelaraino ez da inoiz aile-
gutzen!...

Eta kasualitatez... susmatzen dudana egia baldin bada... ze eskubi-
de du/dute aldizkari hau gordetzeko? Ez al dira ohartzen kontsultatik joa-
ten garenok deretxo guzia dugula Etxalarren eta inguruko herrietan gertatzen denaz informaturik egote-
ko?

Ea bada joaten naizen hurrengoan aldizkaria mahai gainean ikusten dudan. Kontatuko dizuet... hurren-
goan.

Etxalartar bat

Gaztelu, 1990eko apirilak 4

Zuzendari jauna:

Eskutitz hau bidaltzen dizut zuen aldizkaria jaso nahi nukelako.

Euskarako klase batean, TTIPI-TTAPA aldizkari hori erakutsi ziguten. Niri aunitz gustatu zitzaidan. Interesgarria da, zeren herri guztietako gauzak paratzen ditu: zenbat jende hil den, zenbat jaio den, zer pasatzen den herrietan.

Aldez aurretik nere eskerrak emanez zure erantzunaren zai egongo naiz.

Idoia Mitxeko



Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.


IRUBIDE

ostatua
erretegia
LESAKA — 63 71 27

ESTHER

ATEAK
Erakusketa eta salmenta
Zarrailak
Kudroen markoak
Tfnoa: 63 74 23
Zarandía, 5 - LESAKA

GOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3, - BERA - 63 07 86

BOAN TALLERRA

CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA



100m²ko etxebizitza
48m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest

Oieregin, Bertitz
eta Udako Uni-
bertsitate izanen
denaren on-
doan, luxuzko
pisuak, garaje
eta jardinekin.

Informazioa:
EZKALO
Tfnoa: (948) 59 40 54



130m²ko etxebizitza
58m²ko garajea
350m²ko jardin partikularra
Kalitate onekoak
Emateko prest



Egunkaria

Egunkaria sortzen kanpainaren barruan egun hauetan bono, txapa eta akzio salmentari ekin zaio. Ohizko lekuetan ikusiko dituzue salgai bai bonoak, bai txapak; akzioen kasuan segimuenik hurbilduko zaitzue norbait eskeintzen, ez ihes egin eta lagun ezazu euskara hutsean argitaratuko den egunkari hau.

Akzio horien prezioa 5.000 pezetetakoa da, soberaxko bada zuretzat, 1.000 pezetetako bonoak ere badituzu proiektu honetan laguntzeko.

Kanpaina honetaz informazio gehiago nahi baduzu deitu, Bortzirietan, Arantzako Udaletxera 63 54 05 telefonora.

Ekainaren 22an, Kassav, zouk musika taldea pantaila haundian ikusi ahal izanen Lesakako frontoian



Gaueko 10,30etan hasiko da, Arranoa Elkartek antolatutik.

Hamar urte inguru behar izan ditu musika mota honek, merezitako lekua aurkitzeko.

Antillas edo Caribetik datorkigu Europara, Afrikatik bertze erritmo zenbait hartuz. Talde gehie-

nak Parisen finkatuta dau-de eta bertatik irteten dira munduan zehar jirak egitera.

Talde hauetatik ezagunena eta ustez hoberena "Kassav" dugu; estzenario gainean —gutxienez

hamasei lagunek— musika jo, abestu, dantzatu eta animatu egiten duen talde berezia. Talde bezala hogeita disk haundi argitaratuak dauzkate eta bakar-bakarra ere bertze andana bat.

Diskaetxeetan "importazio" sailean aurki ditza-kegu. Atzerrian, normal-ki saltzen dira edozein lekutan.

Lesakako Arranoa Elkartearen babesean hila-bete honen 22an, gaueko hamar terdietan, bideo pantaila haundiaren bitartez, aipatutako talde honek Pariseko Zenith-en egindako azken kontzertua ikusteko aukera izanen dugu Lesakako pilotaleku zaharrean.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88

GRUPO  ZURICH
ASEGURO OROKORRAK

**FONDA
XATURETXEA**

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA


**BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA**

Tfnoa.: 63 79 31

Lesaka

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



GOIZUETA
KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak
Beheko Plaza 10 LESAKA

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR Tfnoa: 58 70 00

TRANSPORTES DEL BIDASOA S.C.L.

DELEGAZIOAK:

BULEGO NAGUSIA
Bittiria 32 - Tfnoa: 63 78 75
LESAKA

**BARCELONA
MADRID - Coslada
VALENCIA
SEVILLA
ZARAGOZA**

KULTUR EGUNAK

ETXALAR - EKAINAK 22, 23, 24

EKAINAK 22, Ortzirala

- "EUSKAL HERRIA LANETIK BESTARA" ikus-entzunezko emanaldia Zentroan, arratsaldeko 7etan.

EKAINAK 23, Larunbata

- Bideo emanaldia eta "ETXALAR III. Ipuin lehiaketa"n saritutako ipuinen irakurketa. Arratsaldeko 5etan, berendua haurrentzat.

EKAINAK 24, Igandea

- 12etatik arratsaldeko 6etara, pilotaplazan, ERAKUSKETAK: ETNOGRAFIA, Herriko Eskoletako haurren MARRAZKI eta ESKULANAK eta BORTZIRIETAKO EUSKARAREN EGOERA.
- 12,30etan HERRIKO TXISTULARI GUZIEN BILKETA: Herriari itzulua eta 2etan bazkaria plazan.
- Ordu batetan, "Etxalar III. Ipuin Lehiaketa"ren sari banaketa.
- Arratsaldeko 5etatik aintzinerara, musika Gregorio Mitxelenarekin.

Antolatzailea: ETXALARKO EUSKARA BATZORDEA
Babeslea: ETXALARKO UDALA

GARE Saneamenduak

**Mobleak eta bainurako tresnak
Iturgintza eta kalefakzioa**

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87

NOVA-COMPUTER

Errekurtso Informatikoen Zentrua

Rio Alzania 23, Tfnoa: 247023 - 31006 IRUÑEA

IKASTAROK:

- ✓ MS-DOS Sistema Operatiboa
- ✓ Testu Prozesatzea
- ✓ Kalkulu orria
- ✓ Grafikoak

Martxan diren kurtsoak:

- ✓ ELIZONDO, IRURITA, ORONOTZ, LEITZA, BERA

Hemendik gutxira:

- ✓ BERA, LESAKA, DONEZTEBE

TXOKO ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik
egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



BANCO BILBAO VIZCAYA
DONEZTEBE

EL LIBRETON

BBVko Superlibreta

**20 EGUNETAN 6 KOTXE TOKATU DIRA NAFARROAN,
ETA GEHIAGO ETORTZEN AHAL DIRA**

Maiatzaren 31an, Doneztebeko Marcelina Lizaso-ri eman zitzaion honako Volkswagen Golf hauxe. Kotxea, Doneztebeko bulegoko zuzendaria den Mikel Errea jaunak eman zion, Nafarroarako BBVko zuzendaria den Angel Soria ere bertan zegoela.

Berriztaketa lanak hasiak Parrokian

Estalki osoa ordeztuko da burdinezko gainegituraz



25 milioi kostako da lan horiek egitea

ROMAN HARRIBILAGA

Maiatzaren bukaeran garabiaren jasotzearekin eman zaie hasiera Parrokiaren berriztaketa lanei. Estalki osoaren aldatzea egingen da, teilatua eta gangak (bobedak) eusten dituzten laxkak edo zertxak burdinazkoez aldatuz; aldi berean, orma guztian barrena zertxak eusten dituzten uztaiak ere aldatu egingen dira ormigoizkoak paratuz.

Modu berean, estetika eta bertze arrazoiak direla eta, berriztatze lanak egin bidenabar, elizaren atzekaldean kokaturik dagoen hilerri ttikiko harriak kanpandorreko eskaileren ondoko lorategian jarriko dira.

Egitasmoaren lanen gauzabidea Iberoko "Jasan Eraikuntzak" burutuko ditu sei hilabeteko epe barruan eta 25 milioitako aurrekontuarekin. Finantzaketa, jendeak eta Udalak emanen dutena, eta Elizarena den Ajesta izeneko etxearen salmentaz aterako den dirutzekin egingen da.

XVI. Mendean eraikia

Dirudienez, XV. mendean gotorleku antza zeukan, XVI.lean gotiko iragankor eta klasiko tankerako eliza bihurtu zelarik. Bere barneluzegoa zenbait gangaz edo bobedaz egina dago, koru gainak berriz igeltsuzko sabaia dauka.

Amador Lanz-en erakusketa Madrilen

Datorren ekainaren 30a arte dago zabalik Madrilgo SOKOA arte galerian Amador Lanz margolariaren oleozko lanaren lagin edo muestra bat beste bederatzi artistekin batera antolatu den taldekako erakusketan. Berau Amador-en hirugarrena da, 1979an Donostiako II bienalean, Telmo Deuna museoa, hirugarren saria irabazi zuenez geroztik eta orain bere lana erakusten duen leku berean bakarka egin ondoren. Jakin izan denez, oraingo erakusketa ere arrakasta osoarekin ari omen da garatzen Amador-entzat eta laukiak

ikustera joan behar duenarentzat ordutegia goizeko 11etatik arratsaldeko 2ak arte eta arratsaldeko 5,30etatik arratsaldeko 9,30ak bitarte da, astelehenez ezik, itxita egonen delako.

Amador Lanz-ek, harakin lanbi-dea utzi ondoren, bete betean dihardu margolaritzan eta aurrerantzera-ko egitasmo garrantzitsuak dauzka, horietako baten berri laster izanen dugulakoan.

Bidasoa karrikan espaloi berria

Adjudikazio epea zabaldu du Udalak Bidasoa kaleko espaloia berritze lanak burutzeko. Aurrekontua 30 milioi ingurukoa izanen da eta gauzabide epea lau hilabetekoa.

Zalaingo industrialdearen hirigintza

Industria zuzendaritzak 898.681 eta 32.955.494 pezetatiko dirulaguntzak eman dizkio Udalari Zalaingo industrialdearen hirigintza burutzeko, zenbait baldintzaren onarpenak egin ondoren.

Bardeako tiro poligonoaren eraispena eskatu Udalak

Osoko bilkuran hartutako erabakian, Udalbatzak Bardeako tiro poligonoaren aurkako Batzarreak aurkeztutako proposamenaren hiru puntu, eraispena horien artean, aho batez onartu ditu. Laugarren puntua, proposamenaren hirugarrena, dirulaguntza ematea, HBren udal taldea osatzen duten hiru zinegotzien botoekin lortu da.

Jolas istripuan hilik

Oihan Agara Martinez, 5 urteko mutikoa, hilik gertatu zen iragan ekainaren 9an, eguerdi aldera bere etxetik hurbil jolasten ari zelarik erremolke bat gainera etorri zitzaionean, kolpeak politraumatismo eta arnas-ezina eraginez.

LESAKA

Tantirumairu ikastolak ohizko batzarrea egin zuen

M.K.T.

Ekainaren 9an ehunen bat lagun —ikasle ohi, guraso, irakasle eta languntzaile— bildu zirelarik egin zen batzarre hau. Bertan, kontabilitateaz arduratzen diren batzorde ki-deek, urteko diru kontuen balantzea banatu zuten, irakasleek aurtengo ikasturteko balantzea eta datorren urteko tutoriak nola banatuko diren aurkeztu zituztelarik. Gero Ikastolen Federazio eta Konfederazioko informazioa eta asmoak azaldu ziren.

Horrez gain edifizio berriaren martxa nolakoa den aipatu zen, datorren urteko asmoak zeintzuk diren eta honetan, garai batetan funtzionatzen zuten zenbait lantalde martxan jartzea erabaki zen batzordea berritzearekin batera. Lantaldeak hauexek dira: kirola eta pedagogia. Nahiz eta batzarrean zenbait lagun apuntatu ziren batzordean eta lan taldeetan, ez daude erabat osatuak, eta irekiak gelditu dira nahi duen bertze edonor sartzeko.



Bertzalde, REM delakoak eztabaida polita sortu zuela eta, kezka eta ezjakintasun nabaria ikusten da gai horretan. Aintziner begira, sortu berri den pedagogia taldeak hartuko du behar bezala zabaltzeko asmoz.

Bertze gauzen artean Sanferminetako barraka montatzearena ere martxan jarri zen eta dagoeneko bada talde bat hori aintziner atera-ko duena.

L.L.-k Norma Subsidiarioen aldaraztea lortu du

Ezaguna den bezala Lesakako Laminazioak Norma Subsidiarioen aldaraztea edo modifikatzea eskatua zuen eta Maiatzaren 18an ospatutako bilkuran, onartua izan zen eskari hau PNV eta EAKoen botuekin, HBkoek kontrako botua eman zutelarik.

Norbaitek alegaziorik egin nahi izanzen balu uztailaren 9a arte du denbora horretarako.

Guzti honekin zerikusia duen bertze berri bat ere badugu eta zera da, herrian talde bat sortu dela fabrikaren zabalkundearen aurka eta dagoeneko ikusiak ditugu beraiek egindako zenbait kartel. Honetaz aparte Herriko Etxean bilerak egiteko baimena eskatu dute eta ekainaren 1ean ospatutako bilkuran ezezkua jaso zuten eztabaida bat egon ondoren.

Seinale erreflektantea Tomasenekoborda inguruan

Orain urte pasatxo eskatu zuela Udalak seinale erreflektante bat jartzea Tomasenekoborda inguruan,

zeren lainoa dagoenean edo lainoa dugunean erdian dagoen irlatxo hori ez baita ikusten, eta ikarragarriko sustoak hartzen ditu jendeak. Dirudienez Diputaziokoak ez dira eguneroko hemendik pasatzen eta ahaztu eginen zitzaizen seinalea bidaltzea. Behar beharrezkoa dela erran dute Udalekoek eta berriro ere eskatu egiten dute.



Ekainaren 12an ETB-ko "Kalejira" saioan Lesakako ikastolako irakasle diren Lupe Mugika eta Asun Ekiza izan genituen. Joan ez dakigu nola joan ziren, baina etorri... kottxe berri baten jabe, Pariserako bidaia eta 90.000 pezetarekin. Ez dago gaizki, ez da hala? Zorionak.

Ermitan erdara hutsean dagoen kartela, euskaraz ere egonen da

ttipi-ttapan irakurle batek bidali zuen argazkia eta eskutitza ez da hutsean erori eta euskaraz jartzea bi aldiz eskatu ondoren Udalbatzak aho batez erabaki du bitara jartzea, hau da, euskaraz eta erdaraz.

“Usoa” Nekazari kooperatibaren urteko batzarrea

Kargu berriak izendatu ziren

PELLO APEZETXEA

Martxoaren 17an burutu zen, 31 kide edo sozio bertaratu zirelarik. Kontseilukide berriak hautatzera-koan, hauexek dira botu gehien jaso zutenak: Santiago Elizagoienek 10 botu, Jose Mari Pikabeak 9, Jose R. Berruetak 8, Benantzio Iparragirrek 6, Jose Ariztegik 6, Manuel Angladek 5, Juan Bta. Goienetxe, M. Dolores Babaze, Bernardo Mitxelto-rena eta Kontxita Mikelestorenak launa botu.

75 milioi inguruko salmentak egin ditu Kooperatibak 1989. urtean, gehiena haziendarentzako pentsua, noski, Batzarrean hartutako akor-dioz, pentsu hori etxeratu egingen dio Kooperatibak hala nahi duenari, garraio kosturik kobratu gabe. Azke-naldian hartutako bertze akordioaren ondorioz, almagaren mugakide den lur zatia erosi duela aipatzekoa da, pentsu edo silo berriak eraikitzen ari direla ikusi dugu.

Udalaren 1990.erako aurrekontuak (I)

Gastuak: 87.033.452 pezeta. Hona xehetasun batzu:



Iaz, 75 milioitako salmentak egin zituen Usoa Nekazari kooperatibak

Soldatak.- •Enplegatuenak, aseguruak barne: 10.500.000. •Lan-gile kontratatuenak: 4.500.000. **Mantenketa gastuak.-** •Herriko Etxekoa: 1.000.000, hauetatik 400.000 pezeta, ordenagailu eta aparailu berrien mantentzetak suposatzen du. •Eskoletakoa: 500.000. •Osasun Etxekoa: 355.000. •Karrika eta bide konponketa: 700.000. **Zerbitzuak.-** •Karriketako argia: 750.000. •Arazkailua edo depuradoren indar kontsumoa: 500.000. •Zabor bilketa: 537.000. •Gizarte Zerbitzu Mankomunitaterako edo servicio social: 450.000. •Euskara

Mankomunitaterako: 875.000. •Kultur eta kirol ekitalditarako: 600.000. •Andremaritako eta Usategi igandeko bestetarako: 2.100.000. **Obra berriak.-** •Landaketa edo plantazio berriak: 1.600.000. •Jubila-tuentzako egonlekua: 800.000. •Eskola berriak eta kirol lekua: 20.000.000. •Pilota-plazarako argi instalakuntza: 1.900.000. •Bortzirietako zabortegi berriarentzat ordain-du beharra: 1.100.000. •Udaletzeko artxibo katalogaketa: 900.000. •Oihanetatik ateratakotik Nafarroa-ko Gobernuari dagokiona: 3.149.000 (...segituko du...)

Eskoletan arazo larriak berriro

OSKAR TXOPERENA

Joan den ekainaren 11n arratsal-deko 4.30etan bilera garrantzitsu bat izandu zen Igantziko eskoletan. Bilera guraso, irakasle eta Udaletxe-ko hezkuntza saileko partaideen

artein egin zen, hauek izanik gaiak:

1. Egutegiaren onarpena. Da-torren urterako, hau da, 1990-91 ikasturterako, egutegia onartu zen. Aintzineko urteetatik aldatuko dena zera da, irailean eta ekainean klasea

goizez 9etatik 13.30etara izanen dela. Aho batez onartu zen.

2. Irakasle murrizketa. Hau izandu zen bilera honen arrazoi na-

(bertze aldean segitzen du)





gusia eta Igantziko eskoletara arazo larriak dakartzan erabakia.

Hitz bitan azaltzeko, inspektoreak maiatzean eskolako irakasleei hurrengo ikasturtean hiru izan beharrean bi izanen zirela erran zien. Jakin bezain laister aipatzen ari garen bilera konbokatu zen.

Irakasleek erabaki honek ekar ditzakeen ondorioak azaldu zituzten, hau da, ziklo ezberdinetako haurrak gela berean egoteak dituen kalteak.

Guzti hau entzunik, gurasoek

beren ezadostasuna agertu zuten, alde batetik ez zutelako oraindik inongo agiririk jaso Hezkuntz Ministeritzatik eta guttienez eskola kontseiluak horren berri jakin behar zukeelako. Bertze aldetik onartezina ikusten zuten Ministeritzaren ikuspegi ekonomizista, ikasleen kopurua hartzen bait dute kontutan hezkuntzaren kalitatea arraso alde batera utzirik.

Azkenik, inspektorea lehenbaitlehen etorreraztea erabaki zen, beharrezko azalpenak eman ditzan.

3. Eskolako komedorea. Urruti bizi diren haurrentzat, komedore baten bitartez herrian jateko modua Ministeritzan galdetzea erabaki zen.

4. Musika. Haurrak musikara gustora ez joateko arrazoien berri bilatzea erabaki zen, horretarako musika irakaslearekin hitzeginez.

Erran beharra dago 17 guraso agertu zirela bilerara. Kopuru dextea da baina erdiak falta ziren oraindik ere eta gaiak gure ustetan nahiko inportanteak ez balira!

Bestetako bilerak hasi dira

Ekainaren 11n bertze bilera bat ere izandu zen bestak antolatzen hasteko.

Bi gauza zehaztu ziren bakar bakarrik. Alde batetik egunak erabaki ziren, Irailak 28, 29 eta 30 eta Urriak 1 izanen direlarik. Musika taldeak berriz horrela geratuko dira gutti gora behera: Izan, Joselu anaiak, Pasaia eta Minxoriak.

Lan haundia da oraindik egin beharra eta hurrengo bilera ekainaren 25ean arratsaldeko 7.30etan izanen da Biltokin. Anima zaitezte!

ARANTZA

89-90 Ikasturtea bukatu da

Datorren urtean aldaketak egon daitezke



JON LARRETXE

Dagoeneko 89-90 ikasturtea bukatu da, eta hor argazkian ikusten duzuen gazte talde horrek, aurtengoan amaitu ditu Arantzan ikasketak, hau da, Oinarrizko Heziketa Orokorra.

Dakizuen bezala, orain dela hiru urte lortu zen 8garren maila arterai-

(bertze aldean segitzen du)



noko ikasketak Arantzan bertan eman ahal izateko aukera. Eskola berri zen, irakasle gehiago bidali zizkiguten, eta euskarazko D ereduaz ezartzea ere lortu zen.

Hala ere, REM dela eta, datorren urtetik aurrera aldaketak izan daitezke. Badirudi, orain arte 14 urtetaraino bazen ere derrigorrezko eskolaratzea, hemendik aintzinerara 16 urte arte luzatuko dutela. Eta, eskolaratze honen azken zikloa, 12 urtetik 16 urterainokoa eskola berrean eman beharko dela, hau da, ziklo hau ezingo da bi eskoletan banatu.

Honengatik etor daitezke aldaketak Arantzan, izan ere 16 urtetarainoko ikasketak emateko adinako azpiegiturarik ez daukagu, eta horretaz 12 urtetik aintzinerakoak berriro ere Berara joan beharrean aurkituko dira.

Hortaz, adi egon beharra dago

gure lorpenak ez galtzekotan.

Aurtengoan 12 neska-mutilek bukatu dituzte heuren ikasketak eta datorren urtean Berako Lanbide Eskola eta Mugaireko institutoen artean banatuko dira ikasketak jarraitu asmoz.

Ikusten duzuen bezala talde ederra aurtengoa, zoritxarrez datozen urtetan talde murriztagoak dira kopuru aldetik, azken urteotan 3 eta 4 haurreko kintak ere badirelarik.

Beraz, badakizue ume gehiago egin beharra dago, aurrerantzean ere horrelako talde eder eta osatuak ikus ditzagun.

Landondoko zentralaren proiektua erakusketa publikoan

Aspaldidanik geldirik bazegoen ere, berriro martxan jartzekotan dira Landondoko zentrala, bere erabilera argi indarra sortzeko izanen delarik,

beti ere.

Kanal hau ibiltzeko beharrezko dituen urak bi kanalen bidez bideratuko dituzte; bat Berazkungo zentralatik abiatuko delarik eta bertze Arbaiko presatik.

Berazkungo presatik abiatzen denak bide erdian Filipenbordeko errekan hartu du, 1.900 metroko bidea egin ondoren Itzoltzako depositoan bukatuko delarik.

Bertze berriz, Artaiko presatik abiatuko da, Labedoko erreka gehituko zaio bidean. Itzoltzako depositoan lehengoarekin bat eginez. Honen luzera 2.400 metrokoa izanen da.

Itzoltzako depositotik tuboan Landondoko zentralaraino eramanez da.

Proiektu hau erakusketa publikoan dago Udaletxean, edonork ikusi, aztertu eta nahi izanez gero alegazioak aurkez ditzan.

SUNBILLA

Bi talde herri kirol txapelketan

PATXI PETRIRENA

Aldizkari honen bertze orri batean ematen da eskualdeko herri kirol txapelketaren berri, baina aipagarria da Sunbillako bi taldek hartuko dutela parte. Argazkian ikus daiteke sokatira taldeetako bat entrenamendu saio gogorrean, igandero eta zenbait aldiz astean behin baino gehiagotan egiten duten bezala. Pilotazaletasuna murriztu den honetan (aritzen denik behinipehin inor gutti da), frontoian bada bertze kirolendako lekua.



Xorroxin irratiairen legalizazioaren alde

Aho batez onartu zen Ekainaren leko udal plenoan eskualdeko euskaraz zerbitzuaren arduraduna den Ines Gerekak aurkeztutako eskaria, Xorroxin irratiairen legalizazioarako apoioa eskatuz, inguru honetan euskaldunei eta euskarari egiten dien mesedea haundia delako. Horrekin batera, Sunbilla aldean entzun ahal izateko kondizioak hobetzeko desioa adierazi zen.

(bertze aldean segitzen du)



Lehenbiziko Jaunartzeak

Joan den maiatzaren 20an egin zuten beren lehenbiziko Jaunartzea Sunbillako San Juan Bautistaren elizan bertako hamar neska-mutikok: Asier Bertiz, Josu Apeztegia, Aritz Arriola, Cristina Sainz, Igone Salaberria, Sergio Irazoki, Mikel Arrieta, Garikoitz Arrieta, Leire Sanzberro eta Ana Rivera. Egun haietan ingresaturik zegoenez, Don Basiliok ezin izan zuen elizkizuna ospatu, baina zorionez sendaturik dago.

Bazkaritarako gonbitea

Lau-Herrien kontura bazkari bat egiteko gonbitea luzatu die juntak joan den abenduko suteetan lanean aritu ziren guziei, oraindik erabaki gabeko leku eta egunean, seguraski Sunbillan egingen bada ere. Izena ematen ahal du nork bere herrian hilabete honen 20a arte, albinteari edo Herriko Etxeko norbaiti erranez. Abenduaren 6an baino giro hobea izanen da seguraski egun horretan!

Kirol koordinatzailearen aldeko eskaria

Berako Udalak aurkezturik, gai honetan Baztan-Bidasoa-Malerreka-Leitzaran-Arano-Goizueta eskualdeek Nafarroako Gobernuaren aldetik jasaten duten baztertzea salatzen duen idatzi bat onartu zen azken plenoan, Gobernuak jokabide hau zuzen dezan eskatuz eta komarka mailako koordinatzaile bat jarri edo guttienez bertzeetan erabiltzen duenaren arabera diru kantitatea eman dezan esijituz.

ITUREN

Inoiz baino jende gehiago Trinitate egunean

IBAN ISASI

Aurreko aleetan iragarrita genuen bezala, ekainaren 10ean Trinitate egun arrakastatsua ospatu zen. Bederatzian, nahi zutenek akanpada egin zuten urtegiari, juerga izugarria eginez musika eta garagardoez inguraturik. Hurrengo egunean, igandean, herriko eta inguruetakoko jende pila izugarria joan zen tontorreraino, eguraldia ere lagun zutela. Goian, gosaldia ondoren, nahi zuena meza-
ra sartu zen, 10etan edo 11etan; gero, Mendaurretik jaitsi ondoren, Iturengo gazteek antolatutako bazkarian 88k bazkaldu zuten eta bertze batzuk etxetik eramandakoarekin. Bazkalondoa Lesakako Mada-
riagak alaitu zuen. Bortzak aldera, jendea herrira etorri zen eta 7,30etan arratsaldeko ekitadiak hasi ziren, Josune, Ainhoa eta beraiek Iturenen eta Sunbillan dituzten panderoa eta trikitixa ikasleek herriari biratxo bat



eman zioten plazan bukatzeko.

Arratsaldeko 8etatik 10etara EGAN taldearekin dantzaldia eta atsedendian, 10etan bertsolariak aritu ziren (Iturengo Fagoaga anaiak, Arraiozko Bittor Elizagoien eta Lesakako Arozena). Gero, 2ak arte, aurtengo bestetarako Iturengo eta Zubietako udalek egin duten kioskoan segitu zuten jotzen musikariak.

Auzolanak

Ekainaren 9an zenbait auzolan egin ziren Iturenen. Lehenengoa Mendaurreko Trinitatean, ermita xuritu eta eskailerak konponduz. Bertze

auzolana mutilen goiko eskolatik eta landaz landa datorren bidearen zabal-keta eta txukunketa izan zen eta azkenekoa San Joakin eta Santa Ana baselizetaraino doaien pistaren konponketa izan zen.

AEK ikastaroak

Iaz IKAk egin zuen bezala aurtengoan AEKk euskara ikasteko ikastaroak antolatu ditu bi txandatan: bata uztailan eta bertzea abuztuan, udal-
etxeko ganbaran; badirudi iaz udaran etorri zirenek, euskara asko ikasi eta inguruetakoko bestetan ederki aski pasatu zutela.

ZUBIETA

JUAINAS

Lana eta festa dugu urteroko haruntza eta honuntzako balantza... fiestatik lanera, berriro festa egiteko asmoz... hauek dira, bada, puntu nagusiak.

Lana - belarrak, jorrak, mailarendako arabak gutxi balitz bezala ostatuarekin segi behar da. Gaizki zeuden solairuak bota dituzte, zabarra ateria dago.

Urtea joanen da, aisa, berriro martxan paratu orduko. Oraingoa ez da desafio txikia berrikotik, iattun, eraiki behar da, eta gerokoa, gero, horrekin ez bait da bukatzen. Subasta etorriko da, ostalari berriak... indar eta gogo duen jendea behar da: ostatu eta gelak dakarkite lanari aurre egiteko, beterik mantentzeko, turismoaren zirkuitoan egoteko eta abar. Elgorriagako balnearioak lagun ditzake baina ostalariek imajinazioa erabili beharko dute, azkarki gainera. Herritarrek animatuko balira majua izanen zen, bertako *mobi-da* bulkatu behar bait da. Dena den hori ez da belaxe izanen eta, bitartean, maistraren etxea erretejatu ondoren subastan ateriko da, azke-

nengo plenoan erabaki zenez gero.

Fiestak broma galanta *Trentate* bezperakua... bezperaren bezperakoa, hobe esana. Gaueko hamabiak inguruan herri kirolak egon baziren Zubietan, eta egon ziren, gero eztabaida ailegatu zen, gaia? Iturengo alkatearen etxera joateko bide bakarra edo bi sarrera dagoen... biak pasiak izanen ziren eztabaidatarrek konprobatzera joan zirenean, txakur-zen zaunkak algaratuz... Zubieta-la-nuit! Horrelako gau batetan sortuko zen, seguraski, *Trentate* goizean eta aurreko egunetan zabaldu zen murmurioa! Mendaurreko pistan *peaje* ordaindu beharko zela. Prezioak? kotxe bakoitzak mila pezeta, motoak chun duro... ni neu buru belarri erori nintzen sinismenean, beste ugarien artean. Atzendu gabe, zorionak! pista arront ongi bait zegoen. Pistatik abiatu ziren kotxe eta motoak, ailegatu zirenak, bakkarren bat San Anton inguruan geratu bait zen.

Eta fiestetan ari garenez goiko mobida mundiala izan zen, ederra, juerga a tope... eta pelmada galanta heuren buila partikularra guztio-



nen gainetik jarri zutenek eman zutena, alegia. Elgorriaga eta Doneztuarrak omen ziren, San Migel bullosoa erdian zegoela, diotenez. Hura Koinazua!

Ongi pasatu genuen, hala eta guztiz, Aurtitza gero, gero Iturenera... luzatu zen gaua... hortaz ari garela, fijatu zineten kiosko berrian? polita eta sendoa, ez ta? diseinu eta enkargua Iturengo Udalak egin baldin bada ere beste batean esan genuen bezala erdibanakoa dugu. Amarjinetako hemen izanen da!

SALDIAS

San Juan Pestak

TXEMA ALDABE

Ekainaren 23an, larunbata, arratsaldeko 6etan altxaferua botako da eta ondoren eginen den ezkil jotzearekin emanen zaie hasiera. Segidan pilota partiduak; Josetxo Ezkurraren I. Memoriala. Zortzietan pazin-zo-

(bertze aldean segitzen du)



pak Herriko Ostatuan eta 8,30etatik 10,30etara eta 12,30etatik goizaldera dantzaldia Basajaun Taldearekin.

Ekainaren 24a, igandea, San Juan eguna. Goizeko 8etan Karrika Erronda, 12,30etan meza nagusia. Ondotik Mindegia eta Arrospideren arteko aizkora apostua. Arratsaldeko 5etan Joka Txapelketa. 6etan, afit

zionatuen arteko pilota partiduak eta ondotik, bezperan bezala, goizalderarte musikaldia Noche y Dia Taldearekin.

Ekainaren 25ean, astelehena, goizeko 8etan Karrika Erronda. 11etan Herriko Mus Txapelketa. 13,30etan, Mindegia aizkolariaren semeek elkarren arteko aizkora apustua egingen

dute. Arratsaldeko 5etan Haurren Jokoak eta txokolatada. Ondoren herritarren arteko pilota partiduak. 7,30etatik 10,30etara eta 12,30etatik goizaldera dantza egiteko aukera Yatagan Taldearekin. Horrela, amaitutzat emanen dira aurtengo Saldias-ko Pestak.

GOIZUETA

Hogei urtetarako zabortegia

P. A.

Zabortegi bat prestatu behar, nahi ta nahi ez. Azken urteetan kanpora eramán ditu zaborrak Goizuetak, Hernanira 1983.etik hasita. Hernanik ez ametitzean, Lekunberriko zabortegiak hartzen ditu orain, joan den abenduz geroztik. Ez dute ordea Lekunberrikoek ere hori luzatzea nahi. Horregatik da zabortegiaren beharra, eta proiektua egina dago. Hogei urtez zaborrak biltzeko balio-ko duen zabortegi hau, Zumarrene baserri ondoan kokatuko da. Kostua: 30 milioi pezeta. Garraiorako bidea egokitu behar, bost kilometro pista zabaldu, breaztatu, zementozko arekaz edo kunetaz hornitu, eta horretarako beste 40 milioitako presupuestua. Eguneroko zaborra estali eta zabortegia egokitze lanetarako, han bertan norbait bizitzea, Gobernutik eskatzen dutenez geroz, bizilekua eta prestatu behar: milioi bat zu gehiago.

Eta laguntzarik?. Zerbeza fabrika ere, bere zaborrak non sarturik ez eta, Goizuetarekin konpondu asmoz omen dabil, zabortegi beraz baliatu ahal dadin. Horrek zera esan nahi du, fabrikak ere gastutan parte hartuko duela. Nafarroako Gobernuak, bestalde, diru laguntza luzatzea ezin-

bestekoa duenez, herriari azkenean ez zaio, beharbada, zama haundiegirik bizkarreratuko. Orain baitabilta gai horretaz hitz egiten Udala, zerbeza fabrika eta Nafarroako Gobernua.

“Umore ona” elkarte

Orain dela hogeitamar bat urte, herriko festa giroa bizkortzeko sortu zen “Peña Umore Ona”, gaur egun askoz zabalago den “Umore Ona Elkarte” bihurtu da. Zabala goa, bai partaidetzaz, bai helburuez ere. Iazko abenduan bost urte legez-

tatua, 140 kide ditu orain, helburuak kultura eta kirolgintza direlarik nagusiki.

Iharduera edo aktibitate nabariak adierazten hasita, pilota jokoak du lehen lekua. Urtero antolatzen duen herriko Pilota Txapelketan ehunen bat pilotarik parte hartzen du, eskuz maila guzitakoak, eta palaz, helduak. Pilota jokoak landu egiten da Goizuetan, horixe delarik egintza inportanteena, Anjel Salaberriaren zuzendaritzapean gazte eta umeen prestakuntza eta entrenamendua bideratuz. Beste iharduera euskal dantzarena da, une honetan 7-14 urtetako berrogei dantzarik osatzen dute taldea, beren dantza emandiak kanpora ere luzatuz, azkenaldian Katulunia bertaraino.

Mus eta Truke txapelketak, hauek ere urtero antolatzen direnak, berrogeina bikote bildu ditu aurtén. Futbito, lasterketa edo krossa eta menditarako ibilaldiez gain, zenbait bestelako ekitaldi gauzatzen dira urtean zehar Elkartearen eskutik: jaialdiak, hitzaldiak, ea. Herriko festak alaitzeari ez dio utzi “Umore Ona”ko jendeak, noski, kalera blusa berdez ateraz nahiz jan-edanetara bilduz. Elkartean, ehun afaldar edozein larunbatez ikus daitezkeela.



Doneztebeko bestak

AGURRA



Aurten ere, bertze urtetan egin izan duen modura, Doneztebeko Txarangak alaituko ditu karrikak.

TXEMA ALDABE

Doneztebarrok, ekainaren 28an, arratsaldeko 8etan botako den altxafe-ruarekin batera hasiko dira hortz egun iraunen duten bestak. Bortz egun haue-
tan denondako ikuskizunak: dantzaldiak, haurren-
dako jokoak, herri kirolak, pilota partiduak, txirringak, txistulariak, txaranga animazioa, betizuak e.a. eta aurten... berria den Trial- Sil —bizikletaz egin-
nen den trial ikusgarria—

Algara, juerga, lagunarteko bazkari-afariak izanen dira nagusi, nolabait, eguneroko kezkak eta ezbeharrak alde batera utziaz.

Ondoko orrialdeotan zehar aurtengo programaz gain, aintzinako urtetako argazkiak eta denda, ostatu, banku eta komertzioen iragarkiak besta alaitsuak desiatuz.

Gure aldetik besta zoriontsu eta ezin hobeak opa dizkizuegu San Pedro hauetara hurbilduko zareten guztioi.

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 59 44 00
DONEZTEBE

herriz herri, bestaz besta

Besten egitaraua

Ekainak 28, Ortzeguna

Arratsaldeko 8etan: Beste hasiera emanen dien altxaferua botako da Herriko Etxeko balkoitik. Ondoren, herriko Txistulari eta Bear-Zana txarangaren eskuetik kalejira.

Gaueko 12,30etatik 4etara: Bear-Zana pilotalekuan dantzaldia IZADI musika taldearekin.

Ekainak 29, ortzirala, San Pedro Eguna



Doneztebeko Txistulariak besta egun guztian aritzen dira karrikak animatzen

Goizeko 10,30etan: Txistularien eskuetik kalejira.

11,30etan: Meza Nagusia. Ondotik, herriko dantzarien saioa

ES

CAJA LABORAL (P) EUSKADIKO KUTXA



Elkartasunezko jai-giroan!

Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko
Kutxa**



Doneztebeko bestak



Garai bateko dantzariak

eta "Banderaren Dantza". Segi-
dan, herritar guziei eskeiniko zaie

hamaiketakoa Herriko Etxean.

Arratsaldeko 5,30etan: Pilo-

ta partiduak (...).

Arratsaldeko 7,30etan: Beti-
zuak edo behitxoak.

8,30etatik 10,30etara eta
gaueko **12,30etatik 4etara:** BA-
SAKABI taldearekin dantzaldia.

Ekainak 30, Larunbata

Goizeko 8etan: Entzierroa
herriko karriketan barna.

11etan: Malerreka XIII. I-
tzulia txirringaz.

**11etatik 13etara eta arratsal-
deko 4 - 7etara:** Haurrendako
Karts, zezen mekanikoa eta gaz-



DANIEL ELORZA

Harategia

Mercaderes 14, Tfnoa: 59 40 40 - DONEZTEBE

MIGELENA ANAIAK

ERLOJU eta BITXI DENDA

Etxeko tresnak

Amezti z/g, 594126 - DONEZTEBE

DONEZTEBEKO BOTIKA

Mercaderes 1, Tfnoa: 59 40 92 - DONEZTEBE

APEZTEGIA

Burdindegia

Tfnoa: 59 40 65 - DONEZTEBE

LAKANBRA MOTOAK

PUCH Agentzia Ofiziala

Bizikletak, Segadorak

Mercaderes 16, Tfnoa: 59 40 82 - DONEZTEBE

EL CAFE Ostatua

Pintxoetan espezialitatea

Bokadilloak

Parrokia 3, Tfnoa: 59 43 18 - DONEZTEBE



ALBAITERITZA ZENTRU TEKNIKO

Karrika Nagusia 1, Tfnoa: 59 45 91 - DONEZTEBE

RUIZ OKINDEGIA

Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 59 40 37 - DONEZTEBE

herriz herri, bestaz besta

telu haizatuak Bear-Zana pilotalekuan.

8,30etatik 10,30etara eta 12,30etatik 3ak arte: LOS CLAN taldeak eskeinitako dantzaldiak.

3etatik 6etara: Merkatu Plazan gau-pasa ATABAL taldearekin.



Bandera dantzatzen

Uztailak 1, Igandea

Goizeko 8etan: Entzierroa.


11etan: Txistularien kalejira.

11etatik 13etara eta 4etatik 7etara: Nafarroako Aurrezki Kutxak antolatutako haurrendako Jo-

las Parkea.

Arratsaldeko 6etan: Herri

Kirolak (soka-tira, aizkolariak, e.a.) Bear-Zana pilotalekuan.



TELLETXEA
ALTZARIAK

Rosa Seminario z/g
Tfnoa: 59 42 58
DONEZTEBE

**ERLOJU ETA
BITXIAK**

Merkatu karrika
DONEZTEBE



VIDEOSON

**2.500 Bideo titulu
Azkeneko ateratakoak ere!**

Karrika Nagusia 32, Tfnoa: 59 41 02 - DONEZTEBE



**AMEZTIA
JATETXEA**

Espezialitatea euskal
sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf:594028 - DONEZTEBE




**MALERREKAKO
EUSKALTEGIA**
Bestetan ere euskaraz!



Rosa Seminario 4
Tfnoa: 59 41 15



Doneztebeko bestak



Intzakardin egindako bazkalondoko giro animatua

Jarraian TRIAL-SIL (sarrera
dohainik).

**8,30etatik 10,30etara eta
12,30etatik 4etara: LOS CLAN**

Taldeak eskeinitako dantzaldiak.

Uztailak 2, Astelehena

Goizez kalejira Bear-Zana txar-
rangaren eskutik.

Eguerdiko 2,30etan: Bazka-
ria Intzakardi parkean. Ondoren
elkarren arteko jokoak.

**8,30etatik 10,30etara eta
12,30etatik goizaldera:** INGU-
MA taldearekin dantzaldiak.

Azkenik, aurtengo bestei aka-
bila emanen zaie.

OHARRA:

Egun guzietan eguerdiro buru-
haundiak eta erraldoiak herriko
txistulariekin batera ibiliko dira.

 **La Estrella**
ASEGUROAK S.A.

DONEZTEBEKO AGENTZIA

JOSE ANTONIO ELIZONDO Jn.

Intzakardi 8, Tfnoa: 59 40 54 - DONEZTEBE

- ✓ Bazenekien zeure etxea arrisku guzietarako asegu dezakezula, aseguratzen duzun 1.000.000 bakoitzeko 1.000 pzta ordainduz?
- ✓ Bazenekien zure zahartzaroan ere laguntzen ahal dizugula?
- ✓ Bazenekien 25.000.000 pezetatan betetzen dugula zure erantzun-kizun edo erresponsabilitate zibila duzun behiagatik urtean 175 pzta edota zaldiairengatik 1.500 pzta ordainduz?
- ✓ Konpromisorik gabe, zure etxe, baserri, borda edota arbolendako aurrekontuak egingen dizkizugu EZKALO ETXEAN

herriz herri, bestaz besta



ARROPA ETA OPARI DENDA

Merkaderes 9
DONEZTEBE

LEKTRONIKA
ERODRI

ELEKTROGAILUAK
TB - BIDEOAK - SOINUA
Salmenta eta Konponketa

Parrokia 16, Tfnoa: 59 40 60 - DONEZTEBE

MARTIN HARATEGIA

Parrokia 1, Tfnoa: 59 41 60 - DONEZTEBE

MAYLIN
Ostatua

Parrokia 11, Tfnoa: 59 43 66 - DONEZTEBE

KLINIKA DENTALA

J.L. IRURITA eta M.B. RUBIO Doktoreak

Rosa Seminario 7, Tfnoa: 59 42 67 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 59 44 63 - DONEZTEBE

Nerea
Cinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

12
Ostatua

San Miguel 12
Tfnoa: 59 41 53
DONEZTEBE

FZ
FOTO ZALDUA

ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 59 43 64

ENEKEL

Bideo-klub-a
Telebistak, kasetak
eta bideoak

Intzakardi karrika
DONEZTEBE

Doneztebeko bestak

ARREGI OINETAKOAK

Karrika Nagusia 21, Tfnoa: 59 42 10 - DONEZTEBE

ANAIK



TITI BAR

Amezti 7, Tfnoa: 59 42 71 - DONEZTEBE

IRIGOIEN Arraindegia

Karrika Nagusia 2, Tfnoa: 59 41 40 - DONEZTEBE

SHANTI Ostatua

Amezti 16, Tfnoa: 59 40 15 - DONEZTEBE

AROZENA Ostatua

Eguneroko menua

Eguzki Eder 3, Tfnoa: 59 44 43 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

PLATER KONBINATUAK

Amezti 3, Tfnoa: 59 43 06 - DONEZTEBE



- ✓ Eraikuntzak kristalezatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikuluak

CRISTALERIA VELATE

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 - Tfnoa: 58 08 25
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5

Doneztebeko bestak



Doneztebe

Besta onak opa dizkizuegu

GANI

**NAFARROAKO
AURREZKI KUTXA**

Herrirako suhiltzaile parkea auzolanean egiten ari da


MIRENTXU

Leitza, Iruñetik eta Oronotz-Mugairetik urruti xamar dagoenez horrelako zerbait behar zen, bestela suhiltzaileak etorri orduko edo erreta edo herritarrek itzalia zeukaten sua. Hau dela eta bizilagun batzu animatu dira parkea eraikitzea, hasiera batetan pentsatzen zen baino gehiago eta oso martxa onean doaz obrak.

Gaur egun nahiko aurreratuak daude obrak eta datorren udazkenarako bukatuak egonen direla espero da. Jadanik estruktura egina dago, teilatua eta barneko zatiketa falta delarik. Hasiera batetan aurrekontua hamalau milioitakoa baldin bazen ere kantitate hau asko jeitsi da auzolanean egiten ari delako, gainera materiala Nafarroako Gobernuak ematen du.

Eraikuntza honetaz aparte, suhiltzaile dauden ekipoak eta anbulantzia hobetzeko asmoa dago.

Orain arte aritzen ziren suhiltzaileak boluntarioak dira eta horrela jarraituko du izaten oso garestia bait



da fijoak edukitzea. Lan honetan ibiltzen direnak leitzarrak dira denak eta ikastaroetara joan izan dira behar bezala prestaturik egoteko, horretaz gain fisikoki prestatzen ibiltzen dira eta erabiltzen duten tresneria ohituta daude.

Udalak bere aldetik planteatu du behar bezalako aseguroak behar dituztela eta lana betetzeko kondizio on batzu.

Gaztetxea itxita

Bi urte baino guttiagoko bizitza izan du Leitzako gaztetxeak, duela hilabete eta gehixeago Udalak ixtea erabaki bait zuen, istilu frankoren ondoren. Erabaki hori hartzeko arrazoi garrantzitsuenetako bat biztanleen kexak izan dira, 400 firmaz izenpeturiko idatzi bat aurkeztu zutelarik Herriko Etxean. Ordutegiak ez errespetatzea eta goizaldeko orduetan iskanbila haundiak sortzea dira azaldutako kexa batzuk.

Udalaren erabakia EA eta Milagrosa Talde Independentearen botoekin hartu zen, HB abstenituz, beren ustez gazteekin elkarriketa- ren bidez konpondu behar zelako arazoa. Alkateak, ordea, jarrera honi buruz zera dio, HBk beste taldeek bezala auzia konpontzeko ardura izan arren, ez duela ahaleginik egin.



BA eta HBk gogor kritikatu dituzte UBk egindako aurrekontuak



MAÑONE

Oposizioan dauden bi taldeak, hau da, Baztango Alkartasuna eta Herri Batasunak, gogor kritikatu dituzte Union Baztanesaren botoez 1990erako onartutako aurrekontuak.

BA eta HBren ustez, "ez dute irtenbide bat ematen gaur egun, baidarazlan dauzkagun arazoei, hiderazratzaile bat eramaten dute, eta ikusi dugun bezala, UBk ez ditu arazo horiek konpondu".

HB eta BAri galdegin diegularik zein diren haien ustez aurrekontuan akats nagusiak, "plangintza bat falta da. Adibidez, penagarria da hileria bat ez izatea, nahiz eta alkateak erran, hileria egin nahi dela, oraindik ez da ailegatu. Turismo eta industriguneak sortzeko edota indartzeko ez dago partidarik. Ezta ere komunal plangintzarik; nekazaritza indartzeko ez dago atalik. Eta modu berean ez dago ere arbola landatze-

ko asmorik, pixkat konpontzeko gaur egungo egoera, hainbertze bota bait dituzte neurririk gabe. Ez daukate babes ofizialeko etxebizitzak egiteko asmorik. Eta azkenean, heuren bakkrik prestatu dituzte aurrekontuak, oposizioko taldeekin kontsultatu gabe, gizarte eta ekonomi sektore guztiak kontutan hartu gabe" erantzun ziguten.

Denetara, aurtengo aurrekontua 940.153.455 pezetetako da. Bertzeak bertze, Langilego gastuak 260.939.178 pzia, dira Ondasun eta Zerbitzuen erosketak 121.012.426. Inbertsioak berriz, 467.651.350 pezetetakoak.

Billoriak Meakako itzulia irabazi

Iñaki Billoria Iruritarrak, aurtengo Meaka itzulia irabazi zuen, ekainaren 3an. Goizeko 10,30etan Elizondotik atera ziren, Ziga bi aldiz. Belatetik pasatu eta Arizkun buel-

ta eman ondoren, Meakara ailegatu ziren. Ibilbide hau 88 kilometrotakoa izan zen eta Iñaki Billoriak, 2 ordu, 24 minutu 48 segundu behar izan zituen, 28,3 kilometro orduko media eginez. Lasterketa Club Ciclista Baztandarrak antolatu zuen.

Ikastolako haurrak antzerkia egin zuten

Ikastolako haurrak, ekainaren 8an berek idatzitako "Kattalin, Arizakungo azken lamia" obra antzestuzuten Erlategi antzeslekuan. Izen buruak erraten duen bezala, sorgin eta lamien historio bat kontatzen da. Obra honekin, Baztan ikastolako ikasleek sari bat jaso zuten, Nafarroako Gobernuak antzerki lehiaketan.

Ikastolaren eguna

Ekainaren 10ean, ikastolaren eguna ospatu zen bazkari batekin. Bertara irakasle, ikasle, ikasle izandako eta gurasoak hurbildu ziren. Giro ona izan zen. Eguraldi aldetik ezin hobea.

Ikastolak erdizkako legalizaziorik ez nahi

Ekainaren 14ean Baztango ikastolako ordezkariak MEC-ek Nafarroan duen delegatuarekin elkarrizketatu ziren, Baztango Udalak aurkeztutako legalizazio proposamenarekin ezadostasuna adierazteko, bertan edifizio bakar bat hartzen baita kontutan, honek dakarren leku ezarekin, Kuartelekozelaia deritzona bazterrean uzten duelako. Baztango ikastolak gaur egun 173 ikasle ditu O.H.O.ean eta 64 eskolaurrean.

URDAZUBI

Urdazubiko errebestak bukatu dira

ALIZIA OLAIZOLA

Ekainaren 9an errebesta izan zen. Ez genuen erranen halako jendetza izanen zela, baina hala izan zen, hagitx ongi.

9.30etan zikiroa afaldu zuten ehun eta berrogeiren bat lagunek, gero dantzaldia *Akari Taldearekin* goizeko bortzak arte.

Baztango jende aunitz etorri zen eta baita iparraldeko bat edo bertze.

Gainera egun hauetan soldaduak izan ditugu kanposantuen ondoan kanpaturik, bero-bero jarri eta besta aunitz animatu zutelarik.

Dantzaldia eta gero herriko gazteentzat gosaria izan zen *Indiano Baita* Jatetxean. Gosaldu ondoren, zazpiak aldera, Urdazubiko gazteek herria eta ondoko auzoak kurritu zituzten turuta sobera joz eta Landibarko Ixtakoneko nagusia kezkatu zen. Eta hola bukatu zen gure gau



Paia Txapelketako jokalaria

pasa.

Biharamunean, bi orduetarako, gazteek "Moto-Kross"eko prestaketetan hasi ziren eta hiruetarako sarreak kobratzen. Alkerdi auzoan egingako "Moto-Kross"an 900 sarrera saldu ziren eta gazteek ostatu bat jartzeko probetxatu zuten.

Berrogei lasterkari hiru mailetan banaturik: *gazte*, *senior* eta *junior*. Lehendabiziko mailekoen artean Javier Zabala izan zen irabazlea. Gure alderdiko gazte batek ere parte hartu zuen, Zugarramurdiko Juan M. Arburuak, eta postu onean gelditu zen.

ZUGARRAMURDI

Ekainaren 4 eta 5ean herria animatua izan ginuen

TVEkoak etorri ziren sorginen grabaketa ttiki bat egitera

KORO IRAZOKI

Artista printzipala Estefania ginuen berak sorgin zahar baten papeara egiten baitzuen Barrantxeko sukaldeko lurreko suaren inguruan Joseba, Kontxi, Eugenio, Libe, Iker eta Beatrizeri bere gazte denborako ixtorioak kontatzen.

Josebaren lana ere garrantzitsua

izan zen, bera izan baitzen apo lodi eta rebelde baten ihiztari eta zaintzailea, bertzeak ez bait ziren ausartzen apoa manejatzea eta ordun Joseba gustura gelditu zen arratsalde batez eskolik gabe lan hori egiteko.

Barrantxeko "Lainoa" katua ere laster ikusiko duzue zuen telebistetan sorginaren besotan gozo-gozoa erdi lo —aintzineko egunean bortz

katu-kamu izanak zituen eta ez zuen besta haundirako gogorik—.

Eta azkenean —nola ez!— herriko antzerki taldeak gauerdian lezetan akelarre bat egin zuten.

Egia erranez, kolpe batez pentsa-

(bertze aldean segitzen du)





tuz, iduri du polita behar duela izan telebista eta grabaketako mundu hori, bainan ikusi dugunez aldrebes da, aspergarri eta monotonoa baizik

ez bait da: lehenik tresna guztiak behar den tokian paratu —foko, kama-
ra, mikrofono, ea.— gero argi eta soindu probak, gero aktoreak hone-

la jarri, ez dakit norat begiratu, ez dakit zer aurpegi paratu, gero lau hitz baizik ez erran eta akabo! buelta berriz berdin hastera, deus funtsezkorik ikusi gabe. Eta horrela 2-3-4 aldiz. Antzerki taldekoak ere lehenbizian ilusioaz hartu baldin bazuten, azkenean nardatuak bukatu zuten, arratsaldeko 8etako guapo-guapoak sorginez jantziak zirelarik oraindik arratsaldeko 11,30etan funtzioa hastekoa baitzen.

Batez ere espero dugu zerbaite pollita atera izanen dela eta guzti honen emaitza ikusi nahi baduzue seguraski Abuztuaren 28an goizeko 10ak aldean agertuko da, oraindik telebistan ematen ez den programa batean: "Apaga y Vamonos"

SARA

Bidarte eta Sarako Rugby taldeak Frantziako finalan

OLAIN ELKARTEA

Ekainaren 3an Donibane Lohitzuneko zelaian 3.500 lagunengainean jokatu da Frantziako final —hori 3garren serie deitzen den mailan—. Partida gogor eta ideki baten ondotik Sarako Izarrak irabazi du 3 tantoz 16-13.

Arratsean, Herriko Etxeak, jokolariak goraipatu ondoan, denak bildu dira afari baten inguruan, egia erran ez da maiz gertatzen xapeldun izaitea, beraz, egun horrek merezi zuen ohore. Duela 3 urte Sara xapeldun ordea gertatu zen.

Euskal Rugby osasun onean dago, Kanbok ere irabazi du finala *Honneur* mailan eta Garazik gazteetan.



Ekainaren 17an egin zen Sarako Itzulia

Pilota erakusketa

Herriko etxean ikusten ahal duzue erakusketa hori iraila arte, Philippe Piguet *Sarako Izarra* Pilotako buruzagiari esker. Erakusketa zaba-

lik dago *Syndicat d'Initiative*ko bulegoaren tenore beretan. Erran nahi baita hilabete hontan arratsaldeko 2etatik 6 etara. Uztailatik goiti goizeko 9 etarik egonen da zabalik.

K

Luzia Goñik Julian Retegiri eskeinitako bertsoak

I
Erantsungo herri politan
Badut lagun bat aspaldi
joango nintzake bisitatzen
zein etxe den nik baneki.
Badakit bera poztuko dela
hantxe ikustean neri
Mikaela dauka harek izena
Retegin ama da hori.

II
Gu denak zuen begira telebistan
beste askoren moduan
Julian Retegi bezalakorik
ez da beste bat munduan.
Euskal Herrian onenak ziren
Gipuzkoan ta Bizkaian
aspalditxoan diren onenak
dauzkagu guk Nafarroan.

III
Makina bati gustatzen zaio
Juliantxon ezker hori
kontra zertako egingo zaio
askoz gehiago denari.
Partidu hori ikusita
berriketan zertan ari
momentu bat egin behar zaio
gure Retegi jaunari.

IV
Kontrario gutxi izango ditu
jokatzen badu horrela
eta inork ere ez dio kenduko
pilotarian zapela.
Anoetan bilduta dira
beste askotan bezala
Josean Tolosak, nik pentsatzen dut
egin zuela negarra.

V
Segi pilotan aurreera holaxe
besarkadak amaixori
gutxien pentsatzen duenean
Eratsunera joango naiz ni.
Lehengo kontu zaharrak oroituaz
egingo dugu nahiko irri
zorioak bihotzetik
gaur famili guziari.

EZKONTZAK

Luc Despujols eta Sylvie Prada, Saran, ekainaren 1ean.

Jean Marc Hausseguy eta Bernardette Zunda, Saran, ekainaren 1ean.

Jean Bernard Irigoien eta Marie Louise Sathicq, Saran, ekainaren 2an.

Pedro Akizu Leizarreta eta Jeanne Nathalie Fraisse, Saran, ekainaren 11an.

Paulo de Castro Magalhaes eta Marie Paule Azkarraga, Saran, ekainaren 6an.

Jean Pierre Azkarraga eta Monique Chipi, Saran, ekainaren 6an.

Juan Tomás Juankorena Ibarra eta Esperanza Iparragierre Lastiri, Sunbilla eta Doneztebekoa, ekainaren 2an.

JAIOTZAK

Haritz Martinez Fagoaga, Berakoa, maiatzaren 23an.

Aitziber Esnaola Urkia, Beran, maiatzaren 29an.

Ainhoa Blas Arzelus, Donezteben, ekainaren 7an.

Ibai Retegi Zamorano, Igan-tzin, ekainaren 7an.

Gaizka Juanena Saez, Oizkoa, maiatzaren 27an.

Jaione Mindegia Etulain, Oizkoa, maiatzaren 30ean.

Joseba Irigoien Urtxegi, Lesakakoa, ekainaren 1ean.

Vincent Ivandekics, Sarakoa, maiatzaren 21ean.

Ramuntxo Arizkorreta, Sarakoa, ekainaren 6an.

HERIOTZAK

Ramona Ozkoidi Usandizaga, Beran, ekainaren 3an, 84 urte.

Oihan Agara Martinez, Beran, ekainaren 9an, 5 urte.

Juan Felix Galarregi Ibarra, Beran, ekainaren 10ean, 78 urte.

Estefania Telletxea Elizalde, Eratsunen, ekainaren 11an, 78 urte.

Dolores Santamaria Bidart, Donezteben, ekainaren 3an, 89 urte.

Graziano Etxebeste, Saran, ekainaren 5ean.

Dionisio Larrade, Saran, ekainaren 3an.

Joseph Descoins, Saran, ekainaren 1ean.

Santiago Etcheberria, Saran, maiatzaren 30ean.

Jesusa Iriarte Iriarte, Sunbilla, ekainaren 14ean.

Ibardingo merkataldean birmoldaketa egin beharko da



Etorkizuna zalantzakoa ikusten du Ignazio Irazokik, baina ez guztiz ezkorra

MENDE honekin sortzen hasi bazen ere, Ibardingo mugaren inguruan eta 1,5 hektarea azalerako eremuan 25 dendaz osaturiko merkataldeak, Bera eta Bortziritako ekonomi arloan duen eragina garrantzitsua da. Benta izeenez ezagutzen diren denda hauen sorketa Nafarroari dagokion euskal lurraldean eman da bakarrik, Ibardinekin batera Larun, Dantxarinea eta Luzaide direlarik gune ezagunenak. Benta jatorria XX. mendearen lehen urteetan Ibardingo errepide edo karreteraren egitearekin doa, Ipar Euskal Herriko biztenlegoa eta muga inguruan Urruña, Oleta, Azkain... bezalako he-

rrietako artzain, egurgile, meatzari eta baserritarrentzat irekia, janariez hornitzeko eta atsedean leku bihurtuz. 14-18ko gerran biztu eta indartzen hasi zen Ibardingo merkataritza, gero moteltze bat eza gutuz, 39-45eko mundu gerran berbizteko eta Iparaldean aurkitu ezin ziren erosgaiak eskeiniz. Hala ere, hirurogeigarren hamarkadan, turismoarekin batera, salmenta ugaltu egin zen, denda berriak eraikiz eta 83-87ko aldian jo zuen goia.

Berrehun langile inguru izatetik neguan larehun izatera iristen delarik udan, Ibardingo merkataldean lan egiten dutenetatik %90a ikasketa adinean aurkitzen den jende gaztea da, lortzen dituzten bekak baino diru kopuru anitzez handiagoak irabazi asmoz.

Krisiaren hasiera

Azkenaldiotan bentek gorabehera aunitz izan badituzte ere, Europa-ko Ekonomi Elkarrekin datorren 1993ko urtarilaren leian indarrean jarriko duen Akta Bakarraren eraginak aldaraziko du gehienbat egoera. “93ko Akta Bakarra horren barnean sartzen ari garela uste dut, ez da erabateko gelditzerik emanen, hemen eskeintzen ditugun gaiak Iparraldean aurki daitezke dagoeneko eta salneurri hobean; dena den, nazio arteko mugak desagertuko direlako horretan ez dut sinisten” dio garai batean alkate eta diputatu izateaz gain Ibardingo benta baten jabe den Ignazio Irazoki Aranibar-ek.



azken urteotan izan den krisiaz galdetzen zaionean “honek jende kopuruarekin ez du deus ikustekorik. Bai ordea pezetaren balioarekin eta Iparraldean zabaldu berri diren hipermerkatuekin. Benta gehiago zabaldu arabera, jendearen etorria gehitzen joan da —dio Ignaziok—; Ibardin gai aunitzen (arrainak, barazkiak...) eskaintza zabal eta kanpora begira sendotutako erakustokia da. Baina beste aldean dagoen konpetentziarekin, salneurriak berdin egin dira; bezero edo kliente bakoitzeko erosketa kopurua berdina da eta hauen erosteko ahalmenaren irauteak, dendak irekita edukitzea laguntzen du. Dena den, gaur egun gehiago da Hegoaldetik Iparraldera erostera joaten den jendetza alderantziz baino. Gainera, pezetaren balioa sendo dagoenez, gaiak hemen garestitu, alkoholaren prezioa murritzitu eta beste aldean gauza berdinak aurkitzen dituztenez gero, guzti honek krisira eramaten gaitu”.

Hala ere, “merkatalde hau ez da inoiz kontutan hartua izan, beti egon



gara Damoklesen ezpata gainean bagenu bezala, muga eta aduanekiko politika administrazioek edozein momentutan aldatuko zutelakoan. Neuk eta langileek ere ez dugu seriozki hartu, beste lantegi baten esperantzaz, bidenabarreko lantokiztat izan dugu. Gainera benta hauek bereziak dira, gutxiak salmenta

egiten dugulako —handika edo al por mayor ariko bagina kontrabando izanen bait litzateke—. Saldu duguna aitortu behar izan dugu, saltzeagatik administrazioetik laguntzarik ez hartu arren”, gaineratzen du Irazokik.

Etorkizuna eta irtenbideak

Ignazio Irazokirentzat “etorkizuna zalantzakoa da, baina ez guztiz ezkorra. Ibardingo merkataldean birmoldaketa egin beharko da; dantza-leku bat aipatua izan da... lehen arratsaldeko zazpi erditarako dena itxita geratzen zen, orain berri badago gorputzak iraun arte zabalik daukanik”.

Zenbait aterabide aipatzerakoan, “egokitzen joateko irudimena edo imajinazioa erabili behar dugu denak elkartuz, gu, administrazioa eta udala ere behar bada; nik ez diot Ibardin izandakora itzuliko denik, baina bai etxeko maila bati eusteko. Jendea erakartzeko sistema asmatu behar da, aldaketa garrantzitsuak egin, gai erakargarriak eskaini; jolas parke bat aipatzen da..., nik parke naturala nahi nuke, bertako zuhaitz eta piztiaz hornitua, jatetxeak ere bai; zerbitzu berriak eskeini lanpostuak sortuz”, zehazten du. “Horretarako, estudio bat egin beharko litzateke —adierazten du aintzina go—, informazioa biltzeko, jendeak zer bilatu nahi eta erakarriko lukeen jakin asmoz. Egin ahal izateko, elkartasuna beharrezkoa da, baina gure artean, publizitate zerbait, ur ekarketa egitea eta trafikozainak paratuz gain ez dago harreman gehiegirik, bakarkeria da nabarmen eta honek oztopatu egiten du itun edo akordio bat lortzeko bidea”.

ROMAN HARRIBILAGA

Joxe Etxenike, eskuen bitartez sendatzen duen petrikiloa

Joxe Etxenike, Goizueta jaioa da duela 71 urte. Urte guzi hauetan zehar hainbat gauza ikusi ditu, bere bizitza guziz abentureroa izana baita. Oraindik gaztea zela, gerra zibila ezagutu zuen, gero basoan lanean ihardun zuen eta ondoren Frantzia-ko lurraldean pasatu zituen bizpahiru urte, 1953an Argentinara joan zen arte. Handik 1962an etorri zenez geroztik ostalaritza lanean aritua izana da zenbait urtez Irunen. Gauza batzu gaizki atera omen zitzaizkion, eta ordutik aintzina buru-belarri jendea sendatzara dedikatu da, 1971. urteaz geroztik Goizueta herrian bizi delarik. Oraindik burua indar betean aurkitzen duen arren, "desgaste" problemak ditu belaun batetan eta ezin du berak nahi bezainbat ahalegin zuzendu jendeak zuzentzeko zereginera.

Noiz ekin zenion jendea sendatzeari?

Gazte gazetarik banuen joera eritasuna eta gaixotasunak sendatzen saiatzeko. Sendabekarrak ere ezagutzen nituen eta gustoko nuen horietaz ikastea. Baina nituen dohai guzi horietaz ez nintzen ohartu Buenos Aires-era joan nintzen arte.

29 urterekin ikatza egiteari utzi eta Frantziara joan nintzen handik merkeago zelako Ameriketara joatea. Marsellara joan eta 1952. urtean polizoi bezala sartu nintzen Buenos Airesera zihoan ontzi batetan. Argentinara iritsi eta behiak eraitziz lan egin behar izan nuen lau hilabetez paperak egin arte. Ondorengo bi urteetan trastez betetako ka-


rrera batekin herriz-herri diru piska bat bildu bezain pronto Hotel bat erosi nuen Mendozan. Orduan ezagutu nuen Buenos Aires-eko "Escuela de Jesus". Harriturik gelditu nintzen han burmuineko indarra azkartzeko erabiltzen zituzten praktikak ikusterakoan. Han ohartu nintzen nire eskuek zituzten propietate sendakorrez eta geroztik jainkoak emandako indar izpiritual berezia gizartearen onerako soilik erabiltzen dut, inongo helburu materialik gabe, hauxe baita jesukristoren legeak dioena.

Zein metodo erabiltzen duzu jendea sendatzeko?

Jendea sendatzeko dudan ahalmen berezia jainkoak eman didan dohaina da. Nik egin dudana gauza

bakarra indar izpiritual hau praktikan

jartzea izan da. Neurri batean edo bestean denok daukagu indar honek duen posibilitatea, dena dela, jainkoak pertsona batzu aukeratzen dituenonbait, eta misiolari gisa gizartearen onerako ari daitezen ahalmen izpiritual indartsuago batez hornitzen ditu. Nik eskuen bitartez egiten dut gaixoaren txekoa; bihotza, birrikak, urdaila, giltzurrunak, gibelak, bronkioak eta besikularen egoera aztertuz. Gero, gaitzei dagozkien belarrak gomendatzen dizkiet bezeroei, Murcia eta Alicante-tik espreski ekarritako belarrak. Belar hauekin bertze hainbat gaixotasunez aparte Maiz II, Retegi II, Bengoetxea III



Gaixotasun gehienak beheiti ongi ez egitearen ondorioz etortzen dira.

eta IV pelotarien eskuak sendatu ditut.

Ongi ikusten al du jendeak zuk egiten duzun lana?

Badago denetik munduan bezala. Nik jende askori lagundu diot eta gaixotasun asko sendatu ditut eta horiek eskertzen dute nere lana, baina badira baita ere ni lurpean banintz nahiago luketenak. Nik konprenitzen dut jendeak energia izpiritual hauetan ez sinistea baina jainkoak dohain berezi hau eman didanez, bere legearen pean jarraitzeko asmoa dut, beti ere jendearen onerako erabiliz.

PATXI LARRETXE

Gorka Arretxea eta Mikel Larretxea eskolartekoan txapeldun

ROMAN HARRIBILAGA

Benjamin mailan, joan den ekainaren 2an Iruñeko Labrit frontoian jokaturako Nafarroako eskolarteko pilota partidu finalean, Berako Labiaga Ikastolaren ordezkariak ziren, Gorka Arretxea eta Mikel Larretxeak osaturiko bikoteak, 18-11 irabazi zien Etxarri-Aranatzeko Andra Mari Ikastolako Urko Mundinano eta Adur Goikoetxeari. Beratarrek erraz menperatu zituzten aurkako pilotariak, 16-6ko aldearekin joanez markagailuan. Aipagarria da Arretxeak bederatzi tanto egin zituela sakez.

Bertzalde, pilotan ere, Angeltxo Aranibar eta Hasier Saraguetak kimu maileko azpi txapeldun geratu ziren Berako Labiaga Ikastolaren bikote ordezkari bezala. Ekainaren 10ean Gasteizen ospatutako Euskalerriko IX Ikastolen Arteko Jolasen barruko



Ezkerretik eskuinara Gorka Arretxea eta Mikel Larretxea

finalean, 18-15 Gipuzkoako ordazkarien aurka galdu ondoren.

Inaxio Errandoneak pilotazaleen omenaldia jaso zuen

Eztegara frontoia jendez beteta zegoelarik, Inaxio Errandoneak Bortzirietako pilotazaleen omenaldia jaso zuen joan den maiatzaren 30ean.

Retegi II. arekin bikotea osatuz, Euskal Herriko Txapelketa bigarren aldiz lortzeagatik eskeini dio berako Udalak omenaldia. Antolatutako egitarauaren arabera, bi partidu jokatu ziren Eztegara frontoian, bertan Irazoki, Mikel Perizena, Bergara eta Maiz II.a, Ladutxe eta Errandonea berak jokatu. Aposturik ez zegoenez gero, jokoa aunitz irabazi zuen ikusgarritasunean, pilotariak txalo beroak jasoz jendearengandik.

Errandonea eta Retegi II.ari plaka bana eman zien alkateak Udalaren izenean. Ihardunaldia afari batez amaitu zen.

Nafarroako zenbait herri kiroltako finalak Baztan-Bidasoan egingen dira

MATTARI

Nafarroako Herri Kirol Federazioak aurtengo txapelketetako aunitz, eskualdean egiteko asmoak ditu, aipatzekoak dira hauexek:

♦ Amaiurren, Abuztuak 15ean Nafarroako 640 kilotan Sokatirako finala baita egun beerean Txingatakoa.

♦ Larraintzarren, Abuztuak 25,

Nafarroako *arpan* txapelketako finala.

♦ NARBARTEN, Abuztuak 26, Nafarroako motosierra txapelketa finala.

♦ DONEZTEBEN, Irailak 2an, Euskadiko Herri Kirolako espezialitate guztien finala —zazpi probintzietako selekzio hoberenak, 250 kirolari—

♦ BERAN, Irailak 9an, Nafarroako aizkolari txapelketako finala.

Azaroak 1, Baztan-Bidasoako Sokatira eta proba konbinatuko —afizionatu mailan— finala.

Abenduak 3, Iruñean, Herri Kirol festibal haundi bat antolatuko da Nafarroako kirolari hoberenekin kirol hau bultzatzeko helburuarekin.

Herri Kirol Txapelketan 7 herrik parte hartuko dute

MATTARI

Lehenbiziko aldiz antolatuko den Herri Kirol Txapelketa honetan 8 taldeek —7 herri ordezkatzuz— parte hartuko dute. Malerrekatik 4 talde: Sunbilla-A, Sunbilla-B, Zubieta eta Narbarte; Baztandik 3 talde: Amaiur, Arizkun eta Basaburua—Ziga, Anitz, Berroeta eta Almandotz—; Leitza-randik talde bat: Leitza; Bortzirietatik zeu?...

Denetara 100 kirolaritik goiti parte hartuko dute afizionatu mailako txapelketa honetan. Denen artean izandako bilera batean zehaztasunak ezarri ziren, bai lanari, nola puntuaketari, dagokionez.

Zozketa egin ondoren bi talde-tan banatu dira apuntatutako eki-poak:

- A taldea: Sunbilla-A, Amaiur, Basaburua eta Arizkun.
- B taldea: Sunbilla-B, Zubieta, Leitza eta Narbarte.

Probak honako hauexek izanen dira:

Proba konbinatua —3 serie, proba batetik bertzerara pasatzeko eskua eman beharko da eta ondoko ordena honetan—:

- **Lehenbizikoa:** 15 kozkor bildu, bata bertzetik 1,25 metroko tartea izanen duelarik.
- **Bigarrena:** Txingak, 60 metro egin 50 kiloko txingekin.
- **Hirugarrena:** Aizkora, korte bat 45 pulgadako enbor bati.
- **Laugarrena:** Zakularu, 3 pertsona erreleboz legarraz betetako 40 kiloko zaku bat 80 metro egin.
- **Bortzgarrena:** Arpana, 3 korte 45 pulgadako enbor bati.



Sunbillako sokatira taldea

Sokatira: Proba konbinatuaren ondotik izanen da, 8 jokalarien artean gehienez 640 kilo izanen dute. Denak denen aurka arituko dira, batak bertzeari bi tiraldi eginez goma gainean. Federazioak jartzen duen arautegi edo normatiba jarraitu beharko da.

Eki-poak, proba hasi baino orduerdi bat lehenago egon beharko dute plazan baskulan pisatzeko.

Epaileak, Nafarroako Herri Kirolko Federazioak bidaliko ditu.

Finala Azaroak Iean izanen da —lekua berezi gabe dago—, talde

bakoitzetik lehenbiziko biak pasatuko direlarik.

Puntuazioa honela izanen da:

◊ Bi probetako puntuak batuko dira: Proba konbinatuan lehenbizikoak 4 puntu, bigarrenak 3 puntu, hirugarrenak 2 puntu eta laugarrenak puntu bat izanen du, Sokatiran modu berean egingen delarik.

Horrela finalera iritxiko dira puntu gehienak lortu duten talde bakoitzeko lehenbiziko bi eki-poak.

Ligako egutegia oraindik ez denez egin hurrengo *ttipi-ttapan* jarriko dugu.



Etxeberría eta Mindegia Doneztebeko apostuan

MAITASUNAZAHARTZAROM



zaren gelaetarako irakiko murgit
bizi ziren berrak triste hartur



zuzendaria zera hobekiena bizi
zera negozio ederra epinez



(Segituko du noizbait)

Askatasuna?

Gaztetxoan taldeetan edatea heldutasuna eta independentziarekin identifikatu izan ohi da, integratzeko era bat eta aldi berean helduen munduaren aintzinean protesta egiteko bide bat da hau. Gehientsuenak, gainera, zergatik jakin gabe eta beuren kriterioaren kontra edaten dute.

Egoera ez da aunitziker hobetzen denboraren joanarekin. Komunikabideak eta komunitate bakoitzeko talde sozialak izaten dira alkohola edatea prestigio sozialarekin lotzen dutenak eta teoriarik helduak diren pertsonen mezu honek eragiten die, umeei helduak izatean independentzia lortuko dutela erraten zaie-nean eragiten dien bezala.

Aldi batez gehiagorik, NIK NAHI DUDANA EGITEN DUT esaerak erantzuna duen galdera dakarkigu burura: BENETAN?

NAFARROAKO OSASUN
MENTALEKO TALDEA



Horoskopoa

Geminis,... "bixkiak"

Miotologiak dionez, Castor eta Pollux bi anai bixki omen ziren, ama baten semeak baina aita diferenteenak. Pollux Zeusen semea zen eta Castor aldiz errege batena.


Abentura asko izan zituzten eta beti biak elkarrekin ibiltzen ziren, baina azkenean Castor hil zen eta Pollux Olimpora, beste jaungoikoen-gana itzuli zen. Mito horrek adierazi nahi du pertsonak dituen bi osagaiak: bat hilkorra eta bestea espirituala.

Geminis arketipoa

Geminis airezko zeinua da, beraz zeinu mentala eta espekulatzailea da. Berarentzat berak dituen ideiak dira munduko gauzarik errealeak. Gauza guztiei bilatzen die esplikazio edo azalpen logiko eta ulergarri bat eta orduan sentitzen da gustora. Berezko haundia du solaserako, erlaziotarako, objetiboa izateko, ikuspuntu bat baino gehiago kontutan hartzeko,...Baina kualitate hauek defektu bihur daitezke eta orduan txaketeroa, inkonsziente, txatxoa eta sobera nerbiosoa izanen da.

Udaberria bukatzeaz dago

Aries eta Tauro garaian ikusi dugu kanpoa nola sortu eta indartu den, hosto eta loreak eman haundia dutela, baina orain—maiatzaren 22tik ekainare 21era— badirudi naturak bere buruari galdegiten diola: "... guzti hau, zertarako? ez al genuke



bertze zerbaitean hasi beharko?". Garai honetan gero fruituak izanen diren koxkorrak formatzen hasten dira.

Geministarrak: aunitz urtez!

FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Elizondo Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Baztango Olabidean**, baserri bat dago salgai; lasaitasunez haundiko parajea. Belagi eta bertze hainbertze herri-lur erabiltzeko eskubidea. 58 90 11 tfnoa.

LANA

-**Solfeko klaseak** emanen nituzke udan, Iturenen. Interesatuak deitu 594249 telefonora.

-**Lehenbiziko eta zortzigarren** arteko mailako hurrei klaseak emateko prest nengoke, uda aldean Iturenen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi-zior-ekin. Tfnoa: 630108

SALEROSKETAK

-**Erosten dut:** Baserriak, bordak, errotrak, argi indarreko zentralak (nuklearrik ez!), sagardoa egiteko tolaireak, gurdi zaharrak, teilak, tarmak eta solibo zaharrak. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Hiru bizikleta** salgai, 2 karrerakoak, ttikiak, 5.000 pezetatan bakoitza. Bertzea kroseta bat, amortiguadore eta plato ttikiarekin 10.000 pezetatan. Deitu Lesakako 63 77 86 telefonora.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. 50.000 pzta. Tfnoa: 631188

-**Egurreen egindako jangela** bat saltzen dut: 2 armairu, mahai torneatua eta 6 aulki. 30.000 pzta. Ezkalo jauna 59 40 54 tfnoa.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

-**Euskal ardi-zakurkumeak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Ezkalo jauna Tfnoa: 59 40 54

-**Karate egiteko bi jantzi** berri saltzen ditut. 2 zenbakia duen tailakoa (7-8 urtekoentzat) eta 3 zbk.koa bertzea (10-11 urtekoentzat). Biak 6.000 pzta. Tfnoa: 63 00 02

-**2CV Charleston** bat, egoera ezin hobean dagoena, saldu nahi dut 250.000 pztatan. Interesaturik egonez gero dei ezazue 63 11 88 tfnora. Nahi izanez gero konplementoak ere baditu.

-**Brakos-Frances ehiza txakurkumeak** saldu nahi ditut. Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

-**Ardi zakureskoziarra** edo **Colli** bat saldu nahi dut. Informazioa: Ezkalo Jauna. Tfnoa: 594054

DENETARIK

-**Tafallako bikote** batek 8 hilabeteko haur batekin, pisu bat alokatuko luke uztailaren 15etik 31 arte. Deitu tfno honetara: 70 16 53

-**Ja Ja! umeendako Diskaren egilea** den Xabi Muguruza kontratatu nahi baduzue, deitu tfno honetara: (943) 63 09 50

HARREMANAK

- Zuk urteak bete... eta nik ezin jan ez paraguaiorik ez txorizorik. Ezta "ukitu" ere. Zorionak.


—**Pablo Telletxearentzat** Lesakar baten partez: Zutaz maitemindurik nago eta espero dut San Fermine-tan etortzea eta kasu pixka bat egitea. Agur nere bihotzeko azukre koxkorra. Lesakar baten partez. (Doneztebe).

-**Isabel Arlegi** rentzat Elizondoko baten partez: Elizondoko Maldakobordan bizi naiz. Bordatxon ikusi zintudan eta geroztik ezin zaitut ahaztu. San Ferminetan ikusiko garelakoan agurtzen naiz. Zuregana joko dut.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU. Testua: ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188	ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!! IZEN-DEITURAK HELBIDEA HERRIA ttipi-ttapa Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188
--	--

ERAMAZU

ALDE GUZIETARA



**LA CAJA RURAL
PONE EN SUS MANOS
TODAS LAS VENTAJAS VISA**

Anarcha (1053) ...
 sortitum est Uerdasacu (1058) ...
 basconea lingua Mussiturria (1060) ...
 quem bascones vocant Agurai Mendico
 (1085) ... dicitur a rusticis Aker (Altua.
 Nos possumus dicere "Saltus ircorum"
 (Nos possumus dicere "Soto de ueko")
 (1076) ... faciet ut lingua navarrorum
 dicitur unamaister et Accari linca
 faciet bascu ... lamada en

EUSKARA, DENONA

Euskera, de todos.

**NAFARROAKO EUSKARARI BURUZKO I.
ERAKUSKETA OROKORRA**

EKAINAK 26 - UZTAILAK 6

HERRIKO ETXEA LESAKA

(11)



**Nafarroako
Gobernua**

Lehendakaritza eta Barne
Departamentua.